

- NAFARROAKO GOBERNUA
- GARAPEN EKONOMIKOA
- ESKUBIDE SOZIALAK
- OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA
- LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA
- HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**
- HEZKUNTZA
- OSASUNA
- KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA
- LANDA GARAPENA, INGURUMENA ETA TOKI ADMINISTRAZIOA
- SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Urrezko Domina jasotzeko hautagaitzak aurkezteko aukera izango dute herritarrek

Gaurtik aurrera eta urriaren 15era arte hautagaitzak aurkezteko epea irekiko du Gobernuak

Asteazkena, 2018.eko abuztuak 29

Nafarroako Urrezko Dominarako hautagaitzen aurkezpena parte-hartze publikora ireki du Nafarroako Gobernuak. Epea, asteazken honetan hasten dena, datorren urriaren 15era arte luzatuko da, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak sinatu duen Foru Aginduan jasotzen den bezala, gaur [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) argitaratu dena.

Deialdi honen xedea, Dominaren emate prozesuan [hiritarren parte-hartzea](#) bermatzea da, gizartearen hobekuntzaren, balio demokratikoen sendotzearen eta Foru Erkidegoaren kanpoko proiektzioaren alde lan egin duten pertsonak, erakundeak eta entitateak goraiatzeko Nafarroako Gobernuak ematen duen ohorezko saririk handiena.

Hautagaitzak, erakundeek, entitateek, elkarteek eta edozein pertsona fisiko edo juridikok egin ahal izango dituzte. Kontzesioa bere izenean edo legez ordezkatzan dituzten erakundeentzat eskatzen dutenak hautagaitzetatik kanpo utziko dira.

Epaimahaia eta balioespen-irizpideak

Epaimahaia hautagaitzak balioetsiko ditu, Ana Olló Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria buru izanda eta hurrengo erakundeen arduradunetz osatuta: Industria, Energiaren eta Berrikuntzarenak, Plangintzarako eta Politika Sozialen Ebaluaziorako Errealitate Sozialeko Behatokia; Aurrekontua; Lehendakaritza eta Gobernu Irekia; Komunikazioa eta Erlazio Instituzionalak; Heziketa; Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua; Vianako Printzea



Deialdiaren kartel iragarlea.

Erakundea-Kultura; eta Ingurumena eta Lurralde-Antolamendua.

Epaimahaiak, aurkeztutakoen artetik, gehienez hiru hautagai aukeratuko ditu, hurrengo irizpideei lehentasuna emanez: hiritarren taldeak horrela hartutako ereduzko jokaera pertsonal edo kolektiboa; gizartearen balio demokratikoen sustapenerako; herritarren onurarako elkartasuna eta lanaren aldeko ekintzak bultzatzeko; Gizarte, Kultural, enpresa etab., jarduera desberdinetatik, gizarte solidarioagoa eta bidezkoagoa osatzeko ibilbideak; emakumeen gizarterako ekarpenak onartzen dituen generoren araberako parekotasunak; heziketa, osasuna, ingurumena eta aurrerabide sozialen sustapena; eta Nafarroako kanpoko irudiaren bultzada.

Epaimahaiak aukeratutako hautagaitzak Gobernura aurkeztuko ditu eta Nafarroako Lehendakariaren ekimenaz haietako bat aukeratuko du, bere ematea onartuz, Dominako hartzaileak aurretik adostuta.